

2019-2020 IKASTURTEKO ESKOLA MATERIALERAKO ETA JANTOKIRAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskaera aurkezteko epea: 2019ko irailaren 30tik urriaren 29ra arte.

Non eskura dezaket eskabide-orria?

2018-19 ikasturtean eskatu bazen, Ikastetxean eskuratu behar da, aurre-grabaturiko datuak egiaztatzeko (nahiz eta eman ez).

Eskatzen den lehenengo aldia bada, on-line (ondoko estekan) [eskaera on line](#) zein ikastetxean bertan eskura daiteke.

Eskaera on-line egiten bada:

2018-2019 ikasturtean beka eskatu bazenuen, datuak aurretik grabatuta dituen eskabide-orria lortuko duzu idazkaritzan. Ondoren, lotura honetan [ADOS](#) eskabidea balioztatu eta internetez aurkeztu ahal izango duzu, eskabide-orrian agertzen den egiaztatze-kodea erabiliz (bigarren orrialdean). Dokumentazio gehigarria behar izanez gero, eskaneatuta erantsi behar duzu aplikazioak zehazten duen moduan, edo ikastetxean aurkeztu.

Eskaera berria bada, sinadura elektronikoa izanez gero, eskabidea internetez aurkeztu ahal duzu [LOTURA](#) honetan. Sinadura digitalik ez baduzu, lotura berean erregistra zaitzake, eskaera prozesuari hasiera eman, eskabidea bete, inprimatu eta ikastolara ekarri eskatzen diren dokumentuekin batera. Nahi baduzu, dokumentazioa erantsi ahal duzu eskaneatuta, [ESKABIDE](#) lotura honetan .

Eskabidea ikastetxean

Aurreko ikasturtean beka eskatu bazenuen, datuak aurretiaz grabaturik daukan eskabide-orria eskatu behar da ikastolan eta datuak egiaztatu. Ondoren, ikastetxean eman behar da.

Eskabidea berria bada, inprimakia idazkaritzan eskatu eta bete ondoren bertan eman, aurkeztu behar den dokumentazioa gehituz.

Non aurkez dezaket eskaera?

Nahiz eta Hezkuntza Ordezkaritzan eta Zuzenean zerbitzuan aurkezteko aukera izan, ikastetxean aurkeztea gomendatzen da.

Zein laguntza mota jaso dezaket?

Baldintza guztiak betez gero, honakoak jaso ditzakezu (gure kasuan)

- Eskolako materiala
- Jangela

Zein agiri mota aurkeztu behar dut?

2018-2019 ikasturteko beka eskatu bazenuen, soilik orduan emandako datuekiko aldaketarik egon bada, erantsi egin beharko dira aldaketa hauen egiaztagiria: beranduago jaiotako seme-alabak, familia ugari berriak, bizikidetzaren unitatearen beste aldaketak (familia monoparental berriak, alarguntza, banaketak, ezkontzak...), umezurtza, ezgaitasunak, unibertsitate mailako ikasketak egiteko etxetik kanpo bizi diren seme-alabak eta abarren ziurtagiriak.

2018an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerari dagokienez, **soilik aurkeztuko da Errentaren aitoparen fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.**

Ogasunean daturik ez dutenek Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu aurkeztu behar dute (lan kontratua edo nomina agiria, langabezia, pentsioak, gizarte laguntzak, RGI-a, e.a.). Familia unitatea osatzen duten heldu guztien diru sarrerak, ala sarreraren eza, justifikatu behar dira.

Banandutako gurasoen kasuan, bien egoera ekonomikoak justifikatu behar da.

Zeintzuk dira gainditu ezin ditudan diru-sarrerak? Zergatik dago diru-sarrera taula bat baino gehiago?

Diru-sarrera taula desberdinak eskura daitezkeen diru-laguntza mota desberdinei buruzkoak dira. Gainditu ezin diren gehienezko diru-sarrerak informazio-orrian jasota daude eta desberdinak dira familia-unitatearen kide-

kopuruaren eta laguntza motaren arabera.

Haur hezkuntzako 0 eta 2 urteko ikasleentzat errenta-mugak ezberdinak dira.

Nola kalkulatu dira familiaren diru-sarrera garbiak?

ZERGA-OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA-OINARRIA.- KUOTA LIKIDOA + kargei lotuta ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsita daudenak (dietak, sariak, etab.)

Noiz ordaintzen da beka? Nola jakingo dut?

Behin-behineko eta behin-betiko ebazpenen jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira. Aipatutako ebazpenak argitaratzen direnean SMS edo posta elektronikoaren bitartez abisatuko da.

Zer egin dezaket beka ukatzen badidate?

Ebazpena argitaratzen denetik aurrera, behin behineko ukapenari egiteko alegazioak aurkezteko edo eskatzen den dokumentazioa epea 15 egunekoa izaten da, eta behin betiko ukapenari egiteko errekurtsioa aurkezteko, hilabetekoa. Behar izanez gero, Ikastolan eska dezakezu laguntza.

Noiz eta nola ordainduko didate beka?

Laguntza dena batera ordainduko da hilabeteko epean, behin betiko ebazpena ematen denetik aurrera.

Eskola materialerako diru-laguntza emandako kontuan sartuko da. Jantokikoa ikastolako kudeaketa kontura iritsiko da beti.

ARGIBIDE GEHIAGO BEHAR IZANEZ GERO, [IKASTOLAKO WEBGUNEAN](#) BEGIRA DEZAKEZU.